

2004ko irailaren 9a • XXIV. urtea



Herriaren neurri gabeko hazkuntza ez!

03

Oronoz-Mugairiko bizilagunek Hirigintza Planaren onarpenak ekarriko lukeen «neurri gabeko hazkuntza» agertu dira. Elena Zabaleta alkatearekin solasean.



Lanean euskaraz Bortzirietan

14

Sindikatu ezberdinak biltzen dituen Bortzirietako Lan Munduko Euskara Batzordeak kanpaina egingen du «euskara zure laneko erreminta» izenburupean.

04

Ulibeltzak Elkarteak

Mende laurden baino gehiago Sunbilla girotzen



Iraila
Bainuko altzarien hilabetea
%15eko
deskontua preziorik onenen gainean



alkain
 zeramikak eta bainuak

C/ Amutalde, 21 • Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54
 www.alkain.com

MUEBLES
AMETS

larunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

Sarrera
BERAtik da

Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com



Zatoz eta ikusi
gure aukera
zabala



- ***Sukaldeak***
- ***Egongelak***
- ***Logelak***
- ***Bainugelak***

DATUAK...

- Gan den urtean hartu zuen bere herriko alkate kargua Oronoz-Mugairiko Elena Zabaleta 26 urteko gazteak.
- 2002an Baztango Udalak onartu zuen Hirigintza Planaren kontra azaldu da herriko batzarrea eta manifestazioa egin zen irailaren 12an herriaren neurri gabeko hazkundearen kontra.
- Planaren barnean dauden proiektu guztiak onartuz gero, orain 90 etxebizitza okupatuak dituen herrian 165 etxebizitza berri egingen lirateke.

Elena ZABALETA *Oronoz-Mugairiko alkatea*

ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

«Hain herri ttikian hainbertze etxebizitza egitea sobera da»

Aitor AROTZENA

2002an Baztango Udalak onartu zuen Udal Planari buruz informazioz izan ez dela salatu duzue Oronoz-Mugairiko bizilagunek. Isilpean gorde nahi zela uste duzue?

Ez zuen orai dagoen Udaletxeak onartu, lehengoak baizik, baina ez dut uste gogo txarrarekin egin zenik. Pentsan, boletinean... agertu zen, beraien bideak erabili zituzten, baina herriarrak ez ziren horretaz jabetu. Bertze moduren bat erabili beharko zen jendea ongi enteratzeko.

Gaur egun 90 etxebizitza okupatuak dituen herrian 165 etxebizitza berri egingen lirateke Plan Urbanistikoa onartuz gero. Neurri gabekoa dirudi...

Garbi gelditu behar da ez daudela etxebizitza guztiak proiektu bakarren. Badira bizpahiru lau proiektu eta denetara etxebizitza kopuru hori da. Oronoztarrok, eta nik alkate bezala, ez dugu etxebizitzak egitearen aldeko edo kontrako jarrerarik, baina hainbertze egitea sobera da.

Azkazkorroko bidetik San Martin Kolejiara 60 etxebizitza egiteko

«Kanpoko jendeak erosiko lituzke, abuztuan bakarrik beteko lirateke, herrian ez lukete bizirik egingen: herrian badute etxe bat baina ez dira herrian bizi»

proiektua zegoen, baina ekainaren 19an batzarrak gehiengo osoz errefusatu zuen proiektua...

Proiektu horietako bat da. Orain bertan Baztango Udalak onartu du San Martin eskola birkalifikatzea eta aparkalekuak egitea. Baina ondoko lur eremu guztiak, futbol zelaia eta, dauden bezala geldituko dira. Lehenbiziko proiektuan hor ere etxebizitzak egitea aurikusten zen. Ikastetxea eta ondoko lurrak birkalifikatzen zituen San Martineko proiektua agertu zen, baina lur horiek dotazionalak dira, hau da, eskolak, anbulatorioak edo gauza horiek egiteko erabili beharko lirateke. Herriak ez zuen hori galdu nahi eta hori lortu zen. Ikastetxea bakarrik birkalifikatu zen. Urrutia Fundazioak, lehenagoko ikastetxearen jabeak, zentro zibiko haundi

bat egin nahi zuen, hiru solairurekin... Baina mantenimendu gastua handia izanen zela pentsatu genuen eta kolegio barnean lau gela eskatu genituen. Hori lortu zen, gazteendako, jubilatueendako, eskulanak egiteko eta biltegi gisara erabiltzeko lau gela lortu dira.

Herriaren neurri gabeko hazkuntzaren kontra manifestazioa egin zen. Zein kezka somatzen da?

Oronozek zeukan lur dotazionala hor segitzen du, Udalak ez duelakoz birkalifikatu. Baina azkeneko batzarrean alegazio bezala zenbait puntu onartu ziren, errateko, Oronozek ez duela hainbertze etxebizitza egitea jasaten ahal. Lehenbizikoa urarena izanen litzateke, Oronozek ez du urrik, depositotik etortzen diren tuberia guztiak gaizki daude eta hor arazo handia izanen litzateke etxebizitza horiek eginez gero. Herrian ez da halako etxebizitza premiarik eta kanpoko jendeak erosiko lituzke, abuztuan eta asteburuetan bakarrik beteko lirateke, auzolanetara ez dira gaten, batzarretara ez dira gaten: herrian badute etxe bat baina ez dira herrian bizi.



1979ko irailaren 23an Sunbillako Ulibeltzak elkartearen egoitza berria inauguratu zeneko argazkia. Bazkide aunitz soziedadearen blusa beltzarekin ageri dira.

ULIBELTZAK ELKARTEAK OSPAKIZUNA EGIN DU LARUNBAT HONETAN

Sunbillako elkartearen egoitzak hogeita bortz urte bete ditu

1969 urtean hasi zen Sunbillako gazte koadrila bat biltzen, herriaren alde zerbait egin eta elkarte bat osatzeko. Hiru urte pasatu ondotik, 1972an aurkeztu zituzten estatutuak eta araudiak Nafarroako Diputazioan, Ulibeltzak Kultur, Kirol eta Aisialdi Elkartea sortuz. Behin elkarte sortuta, biltzeko leku baten bila hasi ziren. Lehenbiziko urteetan apezaren etxean egiten zituzten bilerak. Gero, herriari garbitokia, labaderoa eskatu zitzaion, hura moldatu eta elkarte egiteko. Baina ttiki geldituko zela susmatu eta Leku-Eder karrikan bajera bat erostea erabaki zuten 1978an. Bazkideek auzolanean moldatu zuten eta 1979ko irailaren 23an, duela 25 urte, ireki zuten gaur egun duten egoitza.

Aitor AROTZENA

Elkarte guzietan bezala, lehendabiziko urteak izan ziren gogorrenak Ulibeltzak elkartearen ere. Egoitza erosteko mailegua hartu zen hamabi ur-

terako. 1990 urtean zorrak ordaindu ziren eta momentu honetan nahiko ongi dago elkarte diru aldetik. Urteko gastu finkoa milioi terdi pezeta ingurukoa dela aipatu digu Antonio Es-

pelosin presidenteak: «Argia dela, garbitasuna, kalefakzioa, telefona... Bazkideek urtean 44 euro ordaintzen dute eta urtean gastatzen den edariarekin, hortaz bizi da elkarte». Lehenbiziko urteetan jende aunitz sartu zen elkartearen, baina gero izan dira urte batzuk bazkide gutti sartzen zirela. Presidenteak argitu digunez, «orduan pentsatu zen gazteari aukera eta erreztasunak ematea bazkide egiteko orduan, baina halere gazte gutti animatu zen. Azkeneko urteotan pixko bat mugitzen ari da gauza eta gazte batzuk sartu dira, baina ez nahi haina. Momentu honetan 179 bazkide ditu Ulibeltzak elkarteak». Bestetan ekitaldi ugari antolatzen ditu elkarteak, baina urte osoan zerbait egiteko gogoia erakutsi digu Antonio Espelosinek: «Iñauterietako karroza, sal-

da banatzen duena, gehien bat gazteek antolatzen dute, guk lokala uzten diogu. Ameriketan ibilitako artzainen besta maiatzaren 1ean egiten da. Gero, urte hasieran mainguru bat ekarri genuen, beti jendea ematen diogu aukera zerbait ikusteko eta aditzeko, elkarteak ez da jateko bakarrik».

HERRI KIROL SAIO BEREZIA HOGEITA BORTZ URTEAK OSPATZEKO

Egoitzaren 25. urteurrenako besta eguna umore ederrean joan zen larunbatean. Ikusmin haundiena herri kirol proba konbinatu bereziak piztu zuen. «Lehenengo baserriko lanak gogoratu eta jendea erakutsi nahi genizkion» dio Antoniok: «Bi arto erreldo jarri eta horien artean hesia, bertze batzuk alperra deitzen dutena, erabili zuten hura xehetzeko. Gero, garai batean bezala, ura garraio egin zuten, eskuetan bi pozalekin eta buru gainean bertze bat eramanez. Belar-zama garraio ere aritu ziren. Artoa bildu, zuritu eta bayoneta deitzen zuten burni batekin hanka azpian artoa hartu eta harekin irauzi egin zuten. Gero egur egitea izan zen, garai batean bezala. Enborra bota eta egurrezko astoaren gainean xehetu zuten, bertze bi lagun arpanan aritu ziren eta trontza horiek lau puskatan banatu eta pilatu egin zuten». Izan ere, herri kirolarekin lotura haundia izan du Ulibeltzak elkarteak. Dena den, jendeak bertzelan uste baldin bada ere, 1990. hamarkada hasieran Nafarroako hainbat txapel lortu zituen Sunbillako taldea ez zen elkartetik atera. «Bazkide aunitz baziren taldean –dio Espelosinek– baina elkarteak ez zuen bere gain hartu».

INĀUTERI ETA BESTETAKO ANIMATZAILEA

25 urteotan Ulibeltzak elkarteak pilotan, txirrindularitzan, mendian eta bertze hainbat arlotan lan egiten saiatu da, baina lan gehiena herriko bestetan egiten du. Ināuterietan urtero-urtero karroza aterratzen du, salda, ardoa eta bertze jan-edatekoak eskainiz. Baina Santiburtzio bestetan du parte hartze haundiena eta ekitaldi aunitz antolatzen ditu. «Bizi haundia eman dio Sunbillari Ulibeltzak elkarteak, ekitaldi pila bat egin ditu eta gehien herriko bestetan aportatu du. Ekitaldi aunitz sartua dago Ulibeltzak elkarteak eta bertze aunitz berrik sortu ditu» dio lehendakariak.

Errate baterako, aurtten, hirugarren urtez Ramon Latasa zenaren omenez aizkolari saria antolatu du. Floren Nazabal eta Mikel Mindegia izan dira irabazle, Larretxea-Olasagasti eta Arrospeide-Peñagarikano bikoteei aurre hartuz. Ostolaza eta Goenatxo harrijasotzaileak ere aritu ziren saio berean. Bertze aldetik, urtetik urtera indartzen ari dira aitzur eta zartagi tiraketa txapelketak. Aurtten Daniel Bertiz eta Iratxe Eizagirre izan dira txapeldunak. Goitibera txapelketak ere ikusmina sortu du azken urteetako Santiburtzioetan. Aurtten Igor Bertiz, Mikel Ibarra eta Imanol Apeztegia izan ziren irabazleak. Joan den urteko arrakasta ikusita, herriko segalari txapelketa aurtten ere egin da. Bidasoa auzoko Meliton Irazoki eta Iñaki Mikelaena «Arrixko» izan ziren txapeldunak, Mendaurko Santiago Espelosin eta Lorenzo Petrarena eta Miakako Patxi Mitxelena eta Migel Mari Mitxelena aitzinetik. Toka txapelketa ere jokatu da aurtten. Gizonezkoen artean Santiago Espelosin izan



Goitibera txapelketak izugarritzko arrakasta izan du azken urteetako Santiburtzio bestetan.

pelketak ere ikusmina sortu du azken urteetako Santiburtzioetan. Aurtten Igor Bertiz, Mikel Ibarra eta Imanol Apeztegia izan ziren irabazleak. Joan den urteko arrakasta ikusita, herriko segalari txapelketa aurtten ere egin da. Bidasoa auzoko Meliton Irazoki eta Iñaki Mikelaena «Arrixko» izan ziren txapeldunak, Mendaurko Santiago Espelosin eta Lorenzo Petrarena eta Miakako Patxi Mitxelena eta Migel Mari Mitxelena aitzinetik. Toka txapelketa ere jokatu da aurtten. Gizonezkoen artean Santiago Espelosin izan

zen irabazle, emakumeen artean Txaro Goizueña. Plater tiraketan Daniel Bertiz gailendu zen eta mus txapelketan Migel Angel Otxandorena eta Jaione Otxandorena. Pilotan eta igerian ere aritu ziren kirolari gaztetxoak, guztiak ere Ulibeltzak elkarteak antolatutako ekitaldiak. Txaranga eta argi soinuak ordaintzen dituztela eta baztan zopak elkartearen prestatzen dituztela kontuan hartzen baldin bada, Ulibeltzak elkarteak bestetan izugarritzko animazioa jartzen duela erratan ahal da zailtzarik gabe.

Antonio ESPELOSIN Ulibeltzak Elkarteak lehendakaria

“Gazteak dira elkartearen bizia eta horiek sartzea nahi dugu”

Elkartearen gazteak sartzea nahi duzue. Horrelako premia somatzen duzue?

Gazteak da edozein elkarreneren etorkizuna, ideia berriak ekartzen ditu, bizia ematen diote... Hondarreko urte hauetan gazte jendea gehiago animatzen ari da, baina ez guk nahiko genukeen haina. Sunbillak 700 biztanle eskas ditu, beraz, erraten ahal da kasik familia guztietan badela elkarteak baz-

kideren bat.

Zer eskaintzen ahal dio elkarteak gazte horiei?

Gaur egun edaria garestia dago ostatuetan eta hemen erdi prezioan dago, hori jakina da. Lokalean 110 bat lagun sartzen ahal dira. Baina egoitza ez da bakarrik otorduak egiteko. Astearen edozer gauza egiteko eta antolatzeko balio du. **Etorkizunera begira, zein asmo dituzte elkarteak?**

Azaroaren 20rako bazkari bat antolatzen ari gara eta lehenengo kantu zaharrak aditzeko modua izanen da. Denetara 60 bat lagun heldu dira kantatzera, Eratsundik, Baztanetik, Iparraldetik... Bertze 50 bazkideri aukera eskainiko dugu bazkarira apuntatzeko. Hel du den urtarillaren 8an bertsoafaria egiten dugu Amets Arzallus, Peñagarikano, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira bertsolariekin. Patxi Larretxea izanen da gai-jartzailea. %40a Euskadiko Kutzak subentzionatuko du.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Comission Paritaire: En cours

TIRADA (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZAILEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. **PRESIDENTEA (Président):** Pello Apeztexea. **KUDEATZAILEA (Gérant):** Joxemanuel Irigoien. **ZUZENDARIA (Directeur de publication):** Aitor Arotzena. **PUBLIZITATEA (Publicité):** Kulturkari, SLU **ADMINISTRAZIOA (Administration):** Amaia Goia. **BERRI-EMAILEAK (Collaborateurs):** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...

INPRIMATEGIA (Imprimeur): Gertu. **ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Mallerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Mallerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Agur informatikari!

Hezkuntzaren xede nagusietako bat ikasleei beren denborako kultura ulertzeko gaitasuna ematea da. Informatika gure kulturaren parte da, eta azken urteotan izandako garapen handia dela eta, hezkuntza ezin daiteke kanpoan gelditu. Komenigarria da informatika aukerako irakasgai gisara eskaintzea.

Gaurko gizartean sortu eta erabiltzen den informazioa hain da zabala non beharrezkoa baita pertsonen informazio egokia hautatzeko beharrezkoak diren tresnak izatea.

Curriculumaren arloetako ikasketak aurrera eramateko informatikak ematen duen laguntza didaktikoa ere ez da txikia. Gaur egun, ikus-entzunezko material asko daude arlo guztietan.

Teknologiak erabiltzeko proposamen batzuk badaude eta informatika berez ikastea osagarri ona da, bereziki erreparatuz maizenik erabiltzen diren tresnen azpian dauden algoritmo eta metodologiei.

Beraz, informatikak bide ematen digu batxilergoko etapan interes, gaitasun eta ezaguera desberdinei erantzuna eman eta ikasketa bide desberdinei loturiko aukerak aberasteko. Orokorrean, ikasleak presatu behar dira industriari, ikerkuntzari edo enpresari dagozkien lan inguruetan jardun dezaten, horietan ohikoak diren tresna informatikoak erabiltzeko.

Hala ere, informatika batxilergoko hautazkoen artean desagertzen da. Hurrengo ikasturterako Nafarroan ikasten

duten gazteei informazioaren teknologiak (informatika) aukeratzeko posibilitatea kentzen zaie. Hau dela eta, informatikari buruzko eza-gupenak jaso nahi dituenak zentro pribatuetara jo beharko du.

Gaur egungo teknologia berriengaraian, zergatik kendu informatika batxilergoko hautazkoen artean? Nori interesatzen zaio?

Irakasle bat.

Adorea, hitz potoloa

379. alean irakurritako Mikel Illarregiren Azken Agurak, harridura sortu digu, nola erabiltzeko moduarengatik, hala edukiarengatik ere.

Mikel, lehenengoa eta azkena izanen da eskutitz hau, ez baitzaigu hau biderik egokiena iruditzen. Beste heziketa modu bat eman izan digute txikidant. Baina nolabaiteko erantzuna emateko beharrean ikusi dugu geure burua, zuk uste baino jende gehiago sartu baituzu zure hitzen artean.

Hasitzeko eta behin, Saldiasko eskolak aurrera darrai, *ardura* gehien izan beharko lukeen gizon horri esker. Lehendik ere erronka haundietan ibilitakoak, berriz ere inork ez bezalako *adorea* erakutsi digu denei, kanpoko inoren idatzizko zein hitzezko erreklamuen beharrik izan gabe. Erantzuna herri osoak eta batez ere eskolan gelditzen diren haurrek jaso dute. Norberak berean ari behar du Mikel, gainontzekoak moldatuko dira beren lanetan, ez duzu us-te? Ongi egindako lanak,

gau gozo eta lasaiak pasazten ditu, eta hori da gehiengoaren helburua, denek beteko ez badute ere.

Ardura, adorea, mina, zure pertsonari buruzko adierazpenak... hitz asko, eta jende asko sartu duzu zure adierazpenetan, denak ere okerreko aldean, zeure herrikoak barne. Ate joka nor norengana etorri den, aurretik ikasia izan behar zenuen. Ezjakintasunak behar ez diren gauzak esatera bultzatzen gaitu.

Zure hitzekin diozunez, gazi-geza daramazu, baina guk adina dakizu zuk, gazi-geza galanta nork izanen duen denbora luzean. Mina eta oroitzapen txarrak utzi dituzu bihotz tiki baten txoko batean. Adoretsu deritzozu horri? Utzi duzun adina pake eraman dezazula zeurekin.

Luze jo genezake Mikel, baina ez luke mereziko. Hizketarako inor ez bezalakoak gara euskaldunak, ea egi horri ohore egiteko gauza ote garen.

Esaerak dioten bezala, DAMUA BERANDUKO DOLUA.

Mertxe URRUTIA
JUANENEA eta 15
sinadura gehiago

Goizuetako herria eta eliza

Plazareneko alorra tar-tean dela eliza eta udalaren arteko desadostasunak ttipi-ttapak argitara emandakoak esames asko sortu du herrian du-darik gabe. Fresnestik Iñigo Elizegik (bidena-barkoan besarkada be-roa, Iñigo) bidalitako gu-

tunean esandakoa osatu nahiean komeniko da herritarrei oroiaraztea, 53.400.000 pezeta kosta zela guztira elizaren konponketa. Iruñeko Gotzaitegiak —elizaren ja-beak alegia—, 2.300.000 pezeta eman zituen. Nondik atera ziren gainerako 51 milioiak? Her-ritik. Hainbat partikula-rrek lana doan egiteaz eta Udalak era askotara laguntzeaz gain, 18.700.000 pezetarekin lagundu zuten herritarrek obra horretan. Gainera, eta hemen komentario hauek sortu dituen Eu-logia Navarroken eta be-re anaia Juanitoren do-nazioak aipatzen hasi be-harrean gaude, Plaze-nek etxea, 16 milioi, eta Mintegi baserria, 20 mi-lioitik goiti, saldu ziren. Biek, egun hauetan hiz-pide den alorrarekin ba-tera, Eulogia eta Juani-to Navarrok «GOIZUE-TAKO ELIZAREN beha-rreri aurre egiteko» utzi-tako ondasunak. Hau ho-rrera izanda, ez da ha-rritzekoa Udalaren es-kaintzari Gotzaitegiak emandako erantzuna ja-kindakoan herritar askok sentitu dugun amorrua. Hala ere, ez dugu uste amorruan eta bizpahiru gutunetan gelditu be-harko lukeenik gai honi emandako erantzuna. Alor hori «kendu» behar diogu elizari, horretara-ko arrazoiak ditugulako batetik, eta Goizuetak behar duelako bestetik. Ekimenaren aurrean Udala bera jarri beharko lukeela uste dugu. He-rritar gehienek laguntza eta babesa izanen du inolako zalantzarik ga-be.

Goizuetako Bizirik
Herri Plataforma.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Argia 2004-08-01

«Gerra amaitu zenean etxera etorri behar izan genuen. Familiak nola zeuden ez genekien, haurrak jaso zitzaizketen edo ez. Batzuek, kargua zutenek, ezin zuten hona itzuli eta Ameriketara jo behar izan zuten. Besteak itzuli egin ginen. Franco egotea ez zitzaigun inporta. Kasu gutxi egin genion, ez genion beldurrik. Nire familia oso ezaguna zen, Loiarretarrak, abertzale porrokatuak, baina deus ez ziguten egin».

Pilare ALBA LOIARTE
Goizuetako andereñoa
Argia 2004-08-01

«Ez dut nere burua Asegarceko haur mimatua bezala ikusten. Profesional mailan ari naizen bi urte hauetan lana gogor egin dut eta orain hasi naiz lan horren fruitua ikusten. Uste dut jokua arlo guztietan hobetu dudala. Orain kantxa barnean lehen baino askoz zentratuagoa egoten naiz. Errematean hobetu behar dut, baina badut denbora aurretik akatsak zuzentzeko».

Oinatz BENGOTXEA
Leitzako pilotaria
D. Vasco 2004-09-17

• 10 GALDERA LABUR •

Iruñera Osasunarekin jokatzera joan berria zaitugu. Zer moduz egokitu zara Larrabiden egotera?

Hasieran gogorra egin zitzaidan, baina orain gustora nago. Giro ona da bertan eta lagunak egiten hasia naiz. **Eskolaz aldatzea ere tokatu zaizu. Alde handia al dago Toki-Ona eta oraingoaren artean?**

Tamainuz berdintsuak dira, baina ia inor ezagutzen ez dudanez gogor samarra egin zait bertan hastea.

Futbolak eraman zaitu Iruñera. Noiz hasi zinen jokatzera?

Beti gustatu izan zait futbola eta zazpi urte nituenean hasi nintzen Lesakara joaten, Beti Gaztera.

Futbolariak beldurra omen diote aurrendenboraldiari. Zuri ere hala gertatzen al zaizu?

Beldurrik ez, baina egia da lan gehiago egin behar izaten dela denboraldi hasieran.

Oraingoa bertzeetan baino gogorragoa izan al da?

Ez, alderantziz. Egun gehienetan balonarekin aritu gara eta hori gustokoa da.

Zein da zure futbol talde gustokoa?

Taldeak baino gehiago futbolariak aipatuko nituzke. Ronaldinho, Zidane, Xabi Alonso aunitz gustatzen zaizkit.

Futboleik aparte, zein kirol gehiago dituzu gustukoak?

Ikusteko pilota partidak eta saskibaloia ditut gustoko, baina oraingoz futbola bakarrik praktikatzen dut.

Herriko bestetara agertzeko intenziorik bai?

Noski baietz, ahalik eta gehien etorzen saiatuko naiz.

Zer da herriko bestetatik gehien gustatzen zaizun ekitaldia?

Aukeratzekotan betizuak eta herriarrek egiten duten herri

kirol
saioa
hartu-

ko nituzke.

Dantzaria ere bazara.

Zein dantza duzu gustokoen?

Aunitz badiragustatzen zaizkidanak, baina bat berezi behar banu soka-dantza hartuko nuke.



Ibai RETEGI ZAMORANO
Osasunako jokalaria igantziarra

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erilaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Maziza
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



Helbide berria:

Zalain auzoan,
Aceralia fabrikaren parean
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333
BERA

DROGUERIA
MOLINERO

PINTURAK
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guzikiak

2.000 kolore
baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan
zuk nahi duzun **kolorea**
Profesionalentzat prezio berezia

KULTURA

«Archipiélago» laburmetraiak irabazi du Bidasoaldeko Lehiaketa

Zazpigarren edizioan 27 filme labur aurkeztu dira

ttipi-ttapa

Elias León Siminia-
nik zuzendutako «Ar-
chipiélago» laburme-
traiak irabazi du Bida-
soaldeko Filme Labu-
rren Nazioarteko zazpi-
garren zinemaldiko
lehiaketa. Honenber-
tez, Urrezko Iratzea eta
3.000 euroko saria jaso
zuen irailaren 3an, Be-
rako Kultur Etxean egin-
dako sari banaketan. Bi-
garren saria, Zilarrezko
Iratzea eta 1.500 euro-
koa, Monica Alonso Veig-
ak zuzendutako «Nie-
bla» filmearentzat izan
zen. Ingurumen, natu-
ra, ekologia, etnografia
edo paisaia baloreak ho-
bekien islatzen zuen la-
burmetraiari eskainita-
ko Brontzezko Iratzea
hutsean utzi zuen epai-
mahaiak, sari honen
ezaugarriei egokitzen
zen kalitatezko lanik ez
zegoelakoan. Mezu in-
tegratzaile eta bakeza-

lea egokien agertzen
zuen filmearentzat
emandako Brontzezko
Iratzea eta 1.000 euro-
ak Iñaki Peñafielek zu-
zendutako «Amigo no
Gima» lanarentzat izan
zen. Nafarroa, Euskal
Autonomi Elkarte eta
Akitaniako egile batek
egindako lan onenari
emandako Brontzezko
Iratzea eta 1.000 euro-
ak Ane Muñozek gida-
tutako «El salto de Be-
amon» laburmetraia-
rentzat izan zen.

AKTORE ONENAK LAU FILMETAN PARTE HARTU DU LEHIAKETA HONETAN

Modu berean, akto-
re edo interpretazio one-
nari emandako Bron-
tzezko Iratzea eta 1.000
euroko saria Alvaro An-
tonio Garciak jaso zuen,
«Calla para siempre»,
«Terrones», «La guar-
da del Ermitaño» eta
«Los niños del jardín»

laburmetraietan egin-
dako lanarengatik. Az-
kenik, bertze bi Bron-
tzezko iratze banatu zi-
ren, baina diru saririk
gabekoak. Fotografia
onenari emandako sa-
ria Marc Giralt-en «Ra-
wal Recycle» lanak es-
kuratu zuen eta publi-
koaren saria Monica
Alonsoren «Niebla» fil-
meak.

Bidasoaldeko Filme
Laburren Nazioarteko
zazpigarren zinemaldi-
ko filmeak Bera, Do-
neztebe, Elizondo eta
Hendaia ikusgai izan
ziren abuztuaren 23tik
urriaren 3ra eta saritu-
tako lanak, berriz, irai-
laren 7an eman ziren
Iruñeko Saide Olite zi-
ne aretoetan. Aurtengo
edizioan hogeita zazpi
filme labur aurkeztu di-
ra lehiaketara eta lehia-
ketatik kanpo, tikienei
zuzendutako «Glup» fil-
mea eskaini da.



Goitik beheiti: «Archipiélago», «Nie-
bla», «Amigo no Gima», «El salto de
Beamon» eta Alvaro Antonio García
«La Guardia del Ermitaño» lanean.

Alzuri
• Sukalde tresneria
eta opariak
Landare eta loreak
Telefonoa: 948 630 370
BERA

KATER-BIKE
Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

TOKI ONA **BERA**
Udal kirol konplexua
berria!
CICLO INDOOR
45 minutu • KUOTA: 50 € / 2 ordu / 3 hilabete
70 € / 3 ordu / 3 hilabete
ABONATUAK %10 eko DESKONTUA
IZEN-EMATE epea irailaren 20tik 27ra
INFORMAZIOA: kirol bulegoa 94863 0215

BERA

Irailaren 26an egingen da hamargarren Dantzari Ttiki Eguna

Egur taila ikastaroa emanen du Xabier Zelaietak

Amaia eta Ainhoa

Gure Txokoa Elkar-teak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatuta du datorren irailaren 26rako X. Dantzari Ttiki Eguna. Gure Txokoarekin batera Euskal Herriko herri desberdinetako dantzariak izango ditugu dantzatzeko: Lesakako Tantiurmairu Folklore Taldea eta Gipuzkoatik, Pasai Antxo eta Zumarragako taldeak. Goizeko 10:30etan harrera egingo zaie dantzarietara eta irteera goizeko 11:00etan egingen dute. Egurdiko 12:00etan indarrak berritzeko gosaldia eta 12:45etan Jamotenean elkartuko dira dantzari guztiak berriro. Kalejiran Altzateko plazara joanen dira eta bertan 13:00etan Dantza Jaialdia eskainiko dute. Jaialdia akaututa dantzariak Berako dantzarien etxetara joanen dira bazkaltzera eta arratsaldean 17:00etatik aintzinerat, Patxi Perezekin animazioa antolatu dute. Aintzineko urtetan bezala, eguraldia txarra bada Altzateko Plazan beharrean, dantza jaialdia eta arratsaldeko ekitaldia Eztegarra pilotalekuan egingen dira.



Kiroldegiko matrikulazio epea zabalik

Urriaren 4an hasiko da ikasturte berria Toki Ona kiroldegian. Ikastaro desberdinetan izena emateko epea irailaren 20an ideki zen eta irailaren 26a arte luzatuko da. Aurreko urteko eskaintzaz gain (muskulazioa, mantenimendu gimnasia, multikirolak, yoga, aerobik, tai-chi...) ciclo indoor deitzen dena da aurtengo eskaintza berria. Ikastaro hauetakoren batean izena emateko edo argibide gehiago eskatzeko 012 Info-localera deitu beharko da. Argazkian, kirol anitzen barnean ematen den psikomotritate ikastaroan joan den urtean parte hartu zuten neska-mutikoak ageri dira.

Egur taila ikastaroa Xabier Zelaietaren eskutik

Gure Txokoa elkar-teak Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin egur taila ikastaroa antolatu du. Xabier Zelaia Berako gaztea izan den irakaslea eta urri-tik uztaileira luzatuko da. Ikastaroa larunbatetan emanen du goizeko

10:00etatik 13:00etara udaletxeko gela batean. Matrikula Gure Txokoa Elkarteko bazkideentzat 80 eurokoa izanen da eta bazkideak ez direnentzat 100 eurokoa. Informazio gehiagorako eta izena emateko 012 info-local telefonora deitu daiteke irailaren 23tik urriaren 1a bitarte. Ikastaro hau hasi berrientzat pentsatua dago, eta

helburu nagusia taila tradizionala ikastea da. Taila geometrikoekin abiatu eta ikasle bakoitzak bere gustukoa duen eskulan bat egin beharko du, gero nahi duenak erliebetan sartzeko aukera izanik. Ikasle bakoitzak egurrezko mailua, formoia, gubia angularrak, sarjenta, arkatza eta goma eraman beharko ditu.

FLASH

Bortzirietako igerileku estalia

Lesakako Udalak, Bortzirietan igerileku estalia egin ahalizateko, Berako Udalari hartutako erabakiarekin bat egitea eskatu dio, horrela Nafarroako Gobernua-rekin behar diren trami-teak egiteko. Berako Udalak abuztuaren 18an egindako Udal Batzarrean gaia eztaba-idatu ondoren, botazioaren emaitza ondorengo izan zen: 3 botu alde (Aralar), 4 botu alde baldin eta Berako igerileku estalia ez bada gerorako hipotekatzen (EA) eta 4 aurkako botu (Herrialde). Beraz, Lesakako Udalak bidalitako erabakiarekin bat egingen du Berako Udalak.

Manuel Altzuguren istripuz zendu zen irailaren 5ean

Joan zen irailaren 5ean Manuel Altzuguren Agirre, 78 urteko beratarra, Julio Caro Baroja karrikan, bere etxeko ganbarako balkoitik erorita zendu zen. Manuelek etxeko azken solairura egurra goitzeko polea sistema bat eraiki zuen eta bertako polea bat moldatzen ari zela, oreka galdu eta erori zen. Jubilatua aitzinetik zurgina izanda, Berako San Esteban Elizan bolondres ibilitakoa zen eta bertzeak bertze sakristia berreskuratzen eta teilatua, dorrea eta atea moldatzen aunitz la-gundu zuen.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

BAR Botxo OSTATUA

☎ 948630052 • Zalaia • BERA

LESAKA

Nafarroako Gobernuak behin betiko onespenera eman dio Kultur Etxearen proiektuari


Lau milioi euroko aurrekontua izanen du eta heldu den urte hasieran hasiko dira lanean

Aitor AROTZENA

Nafarroako Gobernuak behin betiko onspena eman dio Lesakako Udalak aurkeztutako Kultur Etxe proiektuari. Jakina denez, Karmeldarren konbentuan eginen da Kultur Etxea eta liburutegia, auditorio edo eszenalekua, erakusketa gelak, tailerrak eta ikasgelak bilduko ditu konbentuko elizan eta ondoan eginen den bertze eraikuntzan. Lesakako Udalak heldu den urte hasieran hasi nahi ditu lanean eta hasierako aurrekontua, oraindik Nafarroako Gobernutik jasoko den dirulaguntza zehaztu gabe dagoela, 4 milioi eurokoa da, gauri bateko 665 milioi pezeta baino gehiago. Juan Fermin Mitxelena alkatearen ustez, Udalak bere zatia egoki ordaindu ahalizateko %60 inguruko dirulaguntza

izan beharko luke proiektuak.

Behin betiko proiektua, aitzinetik egin zegoena bezalaxe, Pedro Bruguera, Jose Herre- eta Maria Jesus Vilas arkitektoek egin. Lehenagokoan, auditorioa elizatik kanpo egin behar zen eraikuntza berrian sartua zen, liburutegiaren ondoan, eta eliza erakusketa-gelak eta ikasgelak egiteko probestuko zen. Principe de Viana erakundeak, ordea, karmeldarren eliza bere hortan mantentzera behartu zuen udala, daukan balio historiko eta artistikoarengatik. Proiektu berriaren arabera, eszenalekua eliz buruan jarriko da eta erdiko nabeak 165 eserleku izanen ditu. Erdiko gurutzeak lehendabiziko eserlekuak hartuko ditu eta gainerakoak giblean izanen dira. Ko-



roan, argi eta soinu kontrolerako tresnak jarriko dira. Konbentuaren barnean bi aldagela, bilera-gela eta ikasgelak egiten dira.

IRAKURKETARAKO ETA IKASKETARAKO GELAK LIBURUTEGIAN

Konbentuaren eskuinaldeko belagian egiten da konbentuarekin lotua egonen den liburutegia. Bi eraikinen arteko loturak bi solairu izanen ditu eta 128 metro koadroko erakusketagela izanen du beheko solairuan eta ber-

tze horrenbertzeko dantza-aretoa goitikoan, bertze ikasgela batzuekin batera.

Liburutegi berrian irakurketa orokorreko gela eta ikasketa gela izanen dira. Eraikuntza honek argi naturala ausarki izanen du, kanpoko aldeko harri tartean hainbat kristal paratuko baitira.

MUSIKA ESKOLA EZ

Hasiera batean, Kultur Etxean egiteko zen Udal Musika Eskola ere, baina Udalak iritziaz aldatu du, Nafarroako Li-

burutegi Saretik musika eskola eta liburutegiak elkartzea ezinezkoa dela jakinarazi baitute, irakurtzeko eta ikasteko isiltasuna behar delakoz. Modu berean, hasieran auditorioa kultur etxe berrian egin beharrean Zambra erabiltzea aztertu zuen Udalak, baina aukera hori baztertu da, gaur egun Zambra itxia delakoz eta ekitaldi bat antolatzen den bakoitzean argindar zerbitzuan alta eman eta gastu izugarriak sortzen direlako.



ETXALAR

Uso postuengatik azken urtetako dirutza berdintsua bilduko du aurten Udalak

81.785 euro lortu dira denetara eta 13. postua ordaindu da gehien

Joseba eta Nerea

Irailaren hasierarekin batera, lehendabiziko larunbatean, larrendin uso ehizirako dauden postuen enkantea egin zen. Jende multzoa hurbildu zen udaletxeko batzar aretara, batzuk jakinminez, eta bertze aunitz sake-la bero-beroarekin. Eguerdiko hamabietan eman zitzaion hasiera enkanteari. Hasiera nahiko motela izan baldin bazen ere, giroa poliki-poliki berotzen joan zen. Ehizturiek postu guti ukitu zituzten, gehienak irteerako prezioan adjudikatu baitziren, baina ukitu zituztenak hagitx mugituak izan ziren. Sei postu ukitu zituzten baina horietako lau 3.000 euro baino gehiago agotan hobetu zituzten. Gehien jo zutena 13. postua izen zen 6.750 euro goitu zen (irteerako prezioa baino 4 aldiz gehiago). 10. postuagatik 5.650 euro jo zuten (irteerako prezioa baino hiru aldiz gehia-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Aurten ere animazio izugarria izan da uso postuen enkantean.

go). 12. postuak ia hirukoiztu egin zuen irteerako prezioa, 4.100 euro jo baitzituzten. Eta akabatzeko 24 postua laukoiztu egin zuten 3.600 euro gehiago ordaindiz. Subastaren ondotik udalekoak kontent ageri ziren, baina sesta ematea esperatu beharra zegoen kontuak ikusteko.

Ehizturiek aste bat izaten dute sesta ema-

teko eta 3 sareei eta postu bati eman zioten sesta aurten. Bertze urteekin konparatuz gero, postu guttiagori eman diote sesta aurten baina hauetan ere diru aunitz mugitu zen, lau postuetatik hiruk lortu baitzuten irteerako prezioa biderkatzea.

Behin kontu guziak egin eta gero Udalak 81.875 euro (13,6 milioi pepeta) lortu ditu lar-

mendiko postuekin, subastako postuak eta herriko ehiztariarenak konatatuta. Aurten diru gehien biltzea lortu duten postuak hauek izan dira: posturik garestiena 13.a izan da 9.758,27 euroko prezioarekin; bigarrena 10. postua 8.750,34 euroko prezioarekin eta hirugarrena lehendabiziko sarea 8.348,40 euroko prezioarekin.

FLASH

Piriniotako eraztunaren inaugurazioa

Irailaren 12an Lizaietako gainean inauguratu zuten GR10 eta GR11 Pirineotako ibilbideak lotzen dituen eraztuna. 100 laguntik goiti bildu ziren, batzuk Saratik oinez joan ziren, eta bertzeak herritik. Bertan Etxalar eta Berako alkateak, Nafarroako Mendi Federazioko eta Federazio Frantseseko ordezkariak elkartu eta testu bat irakurri zuten euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. Ekitaldi honi bukaera emateko luntx bat banatu zen bildutako jende guziari.

Zalainek prestatuko du eskolako bazkaria

Landagain eskolako haurrek Zalain jatetxeak prestatutako bazkaria janen dute aurten. Orain dela 18 urte, jangela ireki zenetik, iazko ikasturte arte lanean aritu den Enkarna Iparragirre jubilatu denez gero, Guraso Elkartek haurren bazkaria prestatzeko ardura Zalain jatetxearen gainean utzi du. Hala eta guztiz ere, orain arte jangelako orduan lanean aritu diren Blanka Perez eta Mari Jose Iparragirrek bertan segituko dute.

HERRIKO
ONTATU - JATETXEA

Herriko ontatu, 10 • 948 631 284
Etxalar • NAFARROA

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

IRIONE - GAZTEGIA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

IRIONE - GAZTEGIA

© 948631076 • BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

IGANTZI

Nesken Pala Txapelketaren finalekin hasiko dira bestak

Joxe Mari Goiak irabazi zuen XIV. Mendi-bizikleta Ibilaldia

Oskar TXOPERENA

Heldu den igandean, irailaren 25ean, 10:30etan hasiko dira Igantzi-ko I. Pala Txapelketaren finalak. Hiru final jokatuko dira, ttikienetik hasi eta gaztetxoekin akautuz. Finalen ondotik sari banaketa egingen da eta bazkaria izanen dute antolatzaileek, pilotariek eta gurasoek.

Arratsaldean, Artzai-zakur Lehiaketa izanen da. 25 urtez jarraian antolatu da ekitaldi hau, eta lehenbiziko urte hartan izandako zenbait protagonista berdinekin. Gibelera begiratzuz Pello Pagarizabal aiarra 2003an, Felix Irigoien amaiurtarra 2000 eta 2002an, Alejandro Ibarra lakuntzarra 2001ean, Mikel Aizpurua oiar-tzuarra 1999an eta Xabier Urien abadiñoarra 1998an izan dira azken sei urteotako irabazleak. Urtero erakutsi dizkigute gauza berriak, artzai eta zakurraren arteko ezagutza zenbaterainokoa izaten ahal den agerian utziz. Esku-eskura daukagun ikuskitzuna. Ilunabarreko sargardo bestak, triki-ber-tsoak eta opil-jateak boro-bilduko dute besten lehen eguna.

Joxe Mari Goia berriz ere irabazle

Irailaren 5ean jokatu zen aurtengo Mendi-bizikleta Ibilaldia. Eguerdialderako gogotik bero-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Eskolako Haur Hezkuntzan daude argazkiko haurrak. Hiru mailatan banatuak daudenez, badira batzuk lehenagotik eskolan hasiak, baina bertze batzuk lehenbiziko egunak dituzte, egun gogorrek gehienentzat. Bat edo bertzetan falta sumatuko duzue akaso, baina ez zuten gogorik nonbait taldeko argazkian oraindik ateratzeko. Izanen dute geroago ere ateratzeko aukera.

tu zuen baina bi itzuliak osatzerakoan giro ederra izan zuten txirindularrak. 9:30ak aldera hasi zuten haurrek ibilbide ttikia eta ordu erdi beranduago hasi zen proba nagusia. 112 lagunek emana zuten izena, partehartze bikaina izan da, beraz, aurtenera. Joxe Mari Goia herritar gaztea izan zen, hirugarrenez jarraian, probaren irabazlea. Ibilbide guzia egiteko ordu

bete pasatuxea behar izan zuen, iaz baino hiru minutu guttiago. Eguraldia lagungarri izan zuten horretarako, bideak egoera ezin hobean baitzeuden. Bigarrenari, Julen Garcia Merce-ro donostiarrari, hiru minutuko aldea kendu zion eta hirugarrenari, Daniel Beloki orkoiendarrari, segundu batzuk gehiago. Gainerako mailetan hauek izan ziren irabazleak: hurre-

tan: Aitor Begino igantziarra; mutikoetan: Daniel Ariztia beratarra; kadetetan: Iker Ezkarai ororbiarra; gaztetan: Aritz Odriozola donostiarra; azkenik, 40 urtetik goitikoetan: Juan Carlos Delgado irundarra. Probaren ondotik giro polita izan zen plazan, bertan izan baitzen sari eta opari banaketa eta batez ere Biltokioek sekulako hamaiketako eman zutelako.

FLASH

Goizuetarren bisita

Irailaren 25erako ikus-kizun anitz aipatu dugu orain arte. Bada, egun horretako agenda es-tuan bertze kontu bat ere gelditzen zaigu sartzeko, goizuetarrak etorriko baitira mendiz Igantziara. Ohitura denez, Biltoki Elkartean izanen dute bazkaria eta pentsatzekoa da bazkalondan giro polita arrautuko dutela herrian barna.

Mediku dantza

Azken urte honetan Arantza eta Igantzin egon den Agurtzane Auzmendi medikuak irailaren 17an akautu zuen hemengo lana. Gustora egon da jendea berarekin, baina betitiki izandako mediku dantzak jarraitu egiten du. Lehen hemen egondako Begoña Martinezek beteko hutsunea behin behinekoz.



ARGAZKIA: OIHANA TXOPERENA

Hirugarren urtez segidan herriko txirindularrak proba irabazi du Joxe Mari Goiak.



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekari-tza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

ARANTZA

Mendiko lanek, ehizi denboraldiak eta ikastaroek hornitzen dute urtaro hasiera

Ehiztariak hasiak dira etxolak eta postuak txukuntzen

Nerea ALTZURI

Hilabetea erditik go-
ra doa eta udako kon-
tuak gibelean utziz, ur-
taro berri bati ongi eto-
rri egin diogu. Egia erran,
urtero-urtero lan, egu-
neroko eta ohitura be-
retsak izaten dira, bai-
na herriko kronika egi-
terakoan merezi du ho-
rien aipamena egitea.

Batzuek abudogo
bertzeek mantsoago, ira-
tzeak egiten dira orain-
dik ere. Gero eta gutti-
ago aritzen da irazpa-
ttan, baina etxeko ikui-
luan eta bordatan azien-
dak dituztenek eurei ne-
gurako guatze goxoa eta
idorra prestatzeko adi-
na egiten dute baserri-
tarrek. Baratzek ema-
niko produktuak ere
onak izaten dira, eta ge-
rra begira, kontserbak
etxe frankotan egiten di-
ra. Bertzenaz, uzta bil-
du eta hozkailuetan sar-
tzeko ohitura batzuek
ez dute galdu. Fruitue-
kin ere berdin: nok ez
du probatu dagoeneko
etxean eginiko merme-
lada?



ARTXIBOKOA

**Ehizi-denboraldia abudo hasiko da. Testuan aipatu bezala ehiztariak prestaketa lanetan ari dira. Au-
zoetan eta mendi gainetan, ehizirako eremuetan gaztelerazko seinalizazio sail bat jarri dituzte, horiak
eta xuriak, ehiza barrutiaren gainean. Euskaraz bizi garen herrian, gaztelerazko seinaleak paratzea
ere... Ezkerreko argazkian Bagatxar mendia ikusten da Aientsa auzoari itzal emanez.**

Abudo sartuko gara
urrian. Hurrengo alean
eskulanen eta gimnasia
ikastaroak izatekotan,
xehetasunaz emanen
dizkizuegu. Eskolan ere
ikasturtea hasi zen eta
hilabete osoan goizez
bakarrik eskolako saioa
izanen da. Urriritik ai-
tzinera, jantokiko zerbi-
tzua abiatuko da. Es-
kolaz kanpoko jardunei

dagokienez, pilota es-
kolak ia ikasturtea abian
jarria du.

Gainerakoan, ehiza-
rako zaletasunak ez du
hutsik egingen aurten ere.
Joan den hilabetetik mo-
torrak berotzen hasiak
dira ehiztariak bilera eta
ekintzen bitartez. Ehi-
zako morraleak eta bert-
zelako tresnak prest
edukiko dituzte batek

baino gehiagok. Ekai-
tza eta Bagatxar ehizi
eremuetan auzolanak
egiten ari dira urriaren
batean abiatuko den ehi-
za denboraldian mur-
giltzeko. Ehizi postuen
eta setoen txukuntzeak
egin eta denboraldiko
egutegia eginga dute. Ba-
gatxarren eta Ekaitzan
dauden hamar txabolak
ere elikagaiekin, egu-

rrakin eta bertzelako gai-
luekin hornituak izanen
dira. Tira, dozenaka
ehiztari daude herrian
eta urteroko tenorea gai-
nean dute.

Bertzenaz, mendian
ibilaldi bat egin bidena-
bar, onddoen bilaketa
egiteko ez da batere sa-
soi txarra. Onddo tokiak
dakizkienak errazagoa
izanen du.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitopenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**ALBERGEA
JATETXEA**
© 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut

BORTZIRIAK

Lantegietan euskara sartzeko egitasmoekin segitzen du Lan Munduko Euskara Batzordeak

Euskara Mankomunitatea, Euskaltegia eta sindikatu ezberdinak ari dira erakundean

ttipi-ttapa

Irailaren 16an eman zuten Bortzirietako Lan Munduko Euskara Batzordeak Cederna Garalurrek Alkaiagako industrialdean duen enpresa mintegian "Euskara lan munduan" egitasmoaren berri. Prentsaurrekoan Urko Ikardo Bortzirietako euskara teknikaria, LAB sindikatuko Julen Mitxeltoarena, ELAko Manuel Agirre, UGTko Patxi Altxu, ELAko Antton Eskudero eta Bortzirietako Euskaltegiko (IKA) Mentxu Peña bildu ziren, guztiak Lan Munduko Euskara Batzordekoak. Bertzeak bertze, orain arte Lan Munduko Euskara Batzordeak egindako ibilbidea oroitarazi zuten eta lan munduan euskararen egoera hobetzeko asmoz egindako ekimenen berri eman zuten. Honela, Julen Mitxeltoarenak batzordea duela hiru urte sortu zela aipatu zuen eta geroztik hainbat ekimen burutu dituzte, lan munduan euskararen egoera hobetu asmoz. Horretarako hiru ardatzetan aritu dira nagusiki: «*Sentsibilizazio kanpainak egn ditugu lantegietan, euskararen aldeko kontzientzia piztu asmoz; bertzetik euskaldutza-alfabetatze kanpainak egin dira lantegietan. Azkenik, iraganean bezala, hemendik aitzinera ere, enpresetan euska-*

ra bultzatzeko eta normalizatzeko neurriak adostea izanen da gure helburua».

Manuel Agirrek irail hondarrean eta urri hasieran egin behar diren jardunaldien berri eman zuen eta ondotik, Patxi Altxuk lan munduko eragile guztiei jardunaldi hauetan parte hartzeko gonbita helarazi zien: «*Euskarak bertze alor batzuetan bidea egin du eta egiten ari da. Lan munduak ere behar du denon ahalegina, euskararen egoera normalizatzeko. Bada garaia lan mundua euskalduntzeko urrats eraginkorrak emateko*».



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Mentxu Peña, Julen Mitxeltoarena, Urko Ikardo, Patxi Altxu, Manuel Agirre eta Antton Eskudero, irailaren 16ko prentsaurrekoan.

«Euskara lan munduan» jardunaldiak egingen dira irailaren 30ean eta urriaren 1ean eta 7an

Hizkuntzaren normalizazio esperientzia ezberdinak ikusiko dira

«Euskara lan munduan: egoera eta erronka nagusiak. Normalkuntza saioak» izeneko jardunaldiak antolatu ditu Bortzirietako Lan Munduko Euskara Batzordeak irailaren 30ean, urriaren 1ean eta urriaren 7an. Jardunaldi hauen helburu nagusia normalizazio ekintzak bideratu edo bideratu nahi dituzten enpresek erabilera planen berri izatea da. Horretaz gain, euskararen erabilera enpresa munduan normalizatzeko egin diren esperientzia arrakastatsuak erakutsi nahi dituzte eta euskarak lan munduan duen egoerari buruzko irudi orokorra eskaini, erronka na-

gusiak zeintzuk diren aztertzearekin batera.

Jardunaldien egitarauari dagokionez, lan munduko euskalduntze esperientzia baten aurkezpena egingen da irailaren 30ean, ortzeguna, 19:30etan Alkaiagan Cederna-Garalurrek duen egoitzan, lan munduko eragileei zuzendua. Zehazi, enpresetan gauzatzen diren erabilera planetako adibide bat eskainiko dute Miel Guridik (Elhuyar), Benito Aiestaran Orkli enpresako euskara arduradunak eta Patxiku Iri-sarri Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariordeak.

Urriaren 1ean, ortzirala, leku eta ordu berean, euskararen egoera lan munduan izenburupean mahai-ingurua egingen dute Agurtzane Loidik (Elhuyar Aholkularitza), Joxe Urrozek (Lanbide Heziketa), Jose Luis Urdangarinek (Savera), sindikatu bateko kideak eta moderatzaileak. Bakoitzak bere arloan egungo egoera, emandako aitzinapausoak eta etorkizuneko erronkak aztertuko ditu.

Urriaren 7an, ortzeguna, lan munduko eragileei zuzenduta Idiazabalgo Ampo fundiziora txangoa eta bisita gidatua egingen da 17:00etan.

DONEZTEBE

Erreka eskubaloit taldeak maila bat beheitiago jokatu du aurtan

Turismoa bultzatzeko dirulaguntza jaso du Udalak

ttipi-ttapa

Joan den denboraldia jautsiera postuan akitu zuen Erreka eskubaloit talde nagusiak. Baina Boscots taldeak kategoriari uko egin behar ziola eta, kategoria mantentzeko aukera zuen Doneztebeko taldeak, eta aurtan ere Nazionalako bigarren mailan aritzekoa zen, jautsi gabe. Baina orain, Federaziotik jakinarazi dutenez, Boscots taldeak ez du kategoria uzteko asmorik. Horrela, Errekak kategoria bat beheitiago jokatu beharko du aurtan, Nazional 2. B mailan hain zuzen. Joan den urteko mailara igaitea izanen da doneztenarren helburua aurtan.

Entrenamenduak hasi dituzte dagoeneko, bai senior taldeak baita jubenil mailakoak ere. Joan den urtean ez zegoen mutikoen jubenil talderik, baina aurtan taldea ateratzea lortu da, iaz denboraldi borobila osatu zuten kadete maila



ARTXIBOKOA

Joan den urtean kadete mailan hain denboraldi bikaina egin zuten gazte gehienek jubenil taldea osatuko dute aurtan.

latik pasatutako jokalariekin batez ere. Liga urrian hasiko da.

Iraola pilotaria azpitxapeldun Logroñon

Erreka kirol elkarte-ko pilotaria den Iraola azpitxapeldun gelditu da Logroñon jokatzen den El Cortijo txapelketa ezagunean. Iau terdia-

ren barrenean jokatzen da txapelketa hau eta finalen 22-18 galdu zuen Bizkaia Azagirreren kontra. Finalerako txartela, Errekakoa den Tainta lesakarraren kontra lortu zuen Iraolak.

Turismoa bultzatzeko dirulaguntza

Nafarroako Gober-

nuko Kultura eta Turismo Departamentuak 3.700 euroko dirulaguntza eman dio Doneztebeko Udalari turismoa bultzatzeko proiektuak abiatzeko. Udalak prestatutako ekitaldiak 6.150 euroko aurrekontua dutela kontuan hartuz, %60a baino gehiago diruz lagundu du Udalak.

FLASH

Kuadrilen arteko futbito txapelketaren finala

Aste hondar honetan jokatuko dira Erreka elkarteak antolatutako kuadrilen arteko futbito txapelketaren azken partidak. Lehenik, ortziaralean, irailaren 24an, finalerdiak jokatuko dira. 20:00etan Karmelitas, S.L., Komando Txanklasen kontra arituko da eta 21:00etan Duff taldea Bestondoren kontra, irailaren 25ean, larunbatean, finala jokatuko da 18:00etan. Lehen fasean ikusitakoaren arabera, Komando Txanklas bat faborito nagusia, B multzoko hiru partidak irabazteaz gain gol gehien sartu eta guttien hartu dituen taldea baita. A multzoan Duff eta Karmelitas lehen postuan berdinduak akitu dute.

Udal aktak elebitan

PNVko Serafina Grazenek udal aktak gaztelaraz eta euskaraz zergatik ez diren idazten galdegin zuen azken batzarrean. Alkateak aipatu zuenez, gaien kopurua eta bere zailtasun teknikoa dela eta euskarara itzultzea zaila dela jakinarazi zion euskaraz teknikariak.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



SUNBILLA

Eliza ondoan Ramon Latasa Plaza egiteko asmoa du Udalak

210.000 euro inguru gostako litzateke udal arkitektuen arabera

ttipi-ttapa

Sunbillako Udalak herriko plaza egiteko in-tentzioa du, eliza eta Bidasoa erreka artean, bi zubien artean da-goien belagian. Horretarako 2.000 metro ko-adroko lur eremu hori erosi zuen duela bi ur-te 54.100 euroren truke, garai bateko 9 milioi pezeta. Garai batean patata eta artoa ereiteko erabiltzen zen, baina aspaldian ez zen bestetako aitzur eta zartagi tiraketa txapelketa bertzerik egiten bertan.

Gainera, duela 35 urte laxoa jokatzen zen pilota plaza estali eta frontoia egin zenetik ez zegoen plazarik Sunbillan eta hurrek eta adinekoek batez ere, ez zuten bertze biltokirik.

Patxi Txokarro eta Maria Urmeneta arkitektoek egindako txostenaren arabera 210.350 euro gostako litzateke bertan plaza egitea. Hori ordaindu ahal izateko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza beharko luke Sunbillako Udalak, baina ez da hori arazo bakarra. Confederacion Hidrografica del Norte uren erakundeak ez du lur eremu horretan eraikitzen uzten, Bidasoa erreka bazterrean egonik, uholde arriskua baitu erakunde horren ustez. Erabaki horrek Iruñetik dirulaguntza jasotzeko aukera mugatuko luke.



ARGAZKIA: AITOR

Santiburtzio bestetan zartagi eta aitzur tiraketa txapelketak egiten diren belagian egin nahi du Udalak Ramon Latasa plaza.

Beraz, oraindik egitasmoa bertzerik ez da Sunbillako plaza, baina horretan aitzinera segi-

tzeko intentzioa du Udalak. Dagoeneko izena pentsatua daukate plazarantz: Ramon La-

tasa Plaza, Euskal Herriko aizkolari haundienetakoa izan den herriko semearen ohoretan.

Aritz ARRIOLA

Bestetan musika paratzeko lekuri ez dago eta behar da horrelako plaza bat. Bi auzoen tartean, eliza ondoan, tokia ezin hobea da. Nere ustez plaza bat inundatuta ere ez da arazo haundirik, etxea balitz aunitzez okerragoa izanen litzateke. Izena ongi iruditzen zait, herri honetatik atera den pertsona iriportanteenetakoa da eta omenaldi gisara ongi iruditzen zait.

Adela LARROQUE

Plaza behar da haurrentzat eta jende guziarentzat, gauza hagitz polita da. Toki egokia dela iruditzen zait. Izen hori jartzea ongi iruditzen zait, hemen Latasa da fama-tua, bertakoa da eta ongi iruditzen zait.

Fermin ANDUEZA

Hagitz beharra da plaza bat, denentzako da eta tokia ere aproposa da, erdi-erdian. Ez dut uste plazaraino inoiz urik ailegatu denik, nik ur haundiak ikusi ditut eta ugaldeta zabaldu zenetik ez da inoiz urik sartu belagi horretan. Hainen fama-tua izan zenez, ez legoke gaizki Ramon Latasa izena jartzea.

GAZTANDEGIA

Eizun

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

ZJ

Zalain
jaketxea
Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

14 logela, bainu eta TBrekin

BORTZIRI
UNSION ANIAK

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

BELARRA

OSTATUA
JATETXEA

Amezitia karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

URROTZ

Sanmigel bestak irailaren 24tik 29ra

Igande arratsean Urrozko lehen tortilla eta postre lehiaketa eginen da

Ortzirala 24

20:00etan altxaferoak eta ezkilak beste ha-siera emateko. **20:30etan** Zopak eta txuri-bel-txa Herriko Ostatuan. **Gauez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Larunbata 25

8:00etan gazteen reti-rada. **10:00etan** Urrozko I. Gazteen txirridulari txapelketa. **11:00etan** herriko gazteen artean pilota partiduak. **12:00etan** Urrozko pilota partiduak, VII. Txapelketa helduen artean. **18:00etan** alebin, benjamin eta jubenilen I. Urrozko pilota torneo. **20:00etan** herriko gazteek tanborra eta kazeuekin poteoa. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Igandea 26

9:00etan alkolemi kontrola eta gehien ematen duenari, gosaria debalde. **13:00etan** aizkora apostua: Mindegia eta Daniel Vicente; Larretxea eta Senosiainen kontra. **17:00etan** gaztelu haizatuak eta karts. **20:00etan** Urrozko I. Tortilla eta postre txapelketa. **Arratsalde eta gauez** JOXE ANJEL soinularia.

Astelehena 27

14:00etan herri bazkaria, Xebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariekin. Ondoren sokatira, txingak eta joko gehiago ezkonduak eta ezkongabeen artean. **Iluntzean** xingar jatea.

Asteartea 28

10:00etan herriko gaz-



Aurten ere mahai inguruan bilduko dira urroztarrak. Herri bazkaria astelehenean izanen dute, Lizaso eta Murua bertsolariekin.

tetxoak trikitixekin karrikak alaituko dituzte. **11:00etan** mus txapelketa. **17:00etan** haurjokoak eta txokolatada. **19:00etan** goitibera lehiaketa. **Arratsalde eta gauez** JOXE ANJEL

soinulariarekin dantzaldia.

Astezkena 29

San Migel eguna

11:30etan Meza Nagusia. Ondoren hameketakoa Herriko Ostatuan.

13:30etan herri kirolak: herriarrak baserritarren aurka (joan den urteko errebantxa). **17:00etan** Gorriti eta bere abereak. **Arratsalde eta gauez** AGERRALDE soinularia.

TOLDOOS BAZTAN
SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATUAK,
VENECIANAK... **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**

**Bidali
t-tapi-ttapa**
herritik kanpo
bizi diren
lagun edo
famiakoei

(+34) 948 635458

BERTIZ

Natur Parketik Otsagabira bidaia egin zen irailaren 4an

Azaroaren lehen hamabostaldian
Txingudira joateko asmoa dute

ttipi-ttapa

Bertizko Natur Par-
ketik Irailaren 4an Otsa-
gabiko herrira, Iratiko
Basora eta bertan du-
ten Naturaren Interpre-
tazio Zentroa ezagu-
tzera joan ziren antola-
tutako bidaian. Egun
hortan ospatu zen Or-
hipean bestan murgil-
durik ere ibili ziren.

9:00etan abiatu eta
11:30etarako Otsaga-

bin zeuden bidaiariak.
Lehenik Interpretazio
Zentroan bisita egin eta
ondoren herritik buelta
bat eman zuten, han zi-
ren txoko guztiekin dis-
frutatuz. Bazkaltzera Ez-
karotzera joan ziren.

Arratsalderako Mus-
kildako baselizara egin
zuten bisita, eta barre-
netik ikusi ez zuten
arren, aitzaki polita izan
zen handik herrira do-



UTZITAKO ARGAZKIA

Adin ezberdinetako hogeita hamalau lagunek parte hartu zuten bidaian. Ar-
gazkian, Otsagabiako Naturaren Interpretazio Zentruan.

an xendatik ibilaldi motz
bat egiteko. Berriz ere
herriko giroa ikusi eta
18:00etarako bueltako
bidea hartu zuten.

Denetara adin ez-

berdinetako 34 lagun
joan ziren.

Hurrengo bidaia
Txingudira egingen du
Bertizko Natur Parkeak,
Plaiaundiko Parkea eta

Hondarribia ikusteko.
Azaroaren lehendabi-
ziko hamabostaldian
izanen da, baina orain-
dik egitaraua erabat ze-
haztu gabe dago.

乐际東 举联盟节乐東*

★ ¡Para que no te suene a chino!
★ Euskaraz ez badakizu, jai duzu!
(no sabes lo que te pierdes)

**MATRIKULA ZAITEZ
EUSKALTEGIAN**
irailaren 30a baino lehen



Baztango AEK 948 452 471
Bortzirietako IKA 948 637 796
Leitzaldeko IKA 948 610 776
Malerrekako IKA 948 451 555

Igantzikoko Sanmigel bestak irailaren 26tik urriaren 2ra

Hogeita borts urte beteko ditu
igandean eginen den Artzain
zakur lehiaketak



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

San Migel eguneko Meza ondotik Igantzikoko Dantza Luzia eskainiko dute herriko dantzari gaztetxoek.

Igandea 26

10:30etan nesken pala txapelketaren finalak.

16:30etan XXV. Artzai Zakur Lehiaketa Mea-kaundiko zelaian.

19:30etan Sagardo Besta. Triki-bertsosaiola eta opil jatea.

Asteartea 28

17:00etan Mus eta Par-

txis txapelketak.

20:00etan Altxaferoa eta ezkil jotzea TXA-KAIN txarangak eta

txanpainak lagundurik.

Ondotik karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin.

0:30etatik aitzinera

Dantzaldia IRATS taldearekin.



*Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantzian eta bisitari guzietan*

Asteazkena 29

San Migel Eguna

11:00etan Karrika buelta, herriko txistulari eta dantzariekin.

11:30etan Meza Nagusia San Migelen omezez herriko Abesbatzak kantatua.

12:30etan Dantza LuZIA.

18:00etan Pilota partidak: • Infantilak: Goienetxe-Sagastibeltza; Ollo-Madariaga
• Helduak: Larralde-Regi; Mazkieran-Arraztoa

20:30etan Igantziko dantzarien dantza saioa.

0:00etatik aitzinera Dantzaldia EGAN taldearekin.

Ortzeguna 30

Haurren Eguna

Egun guzian haurrentzat jokoak eta gaztelu haizatuak izanen dira.

11:00etan Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin herriko txistulariak lagunduta.

12:00etan betizuak.

14:00etan Herri Bazkaria. Andoni EGAÑA eta Sebastian LIZASO bertsolariekin. TXAKAIN txaranga.

19:00etan Herri Poteoa eta ondotik aparra.

0:00etatik aitzinera dantzaldia EGAN taldearekin.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Lesakako Txakain txaranga gazteak San Migeletako arratsalde eta gauak girotuko ditu aurtengoan ere. Ea jendea dantzara animantzen den!

Igantziko Harrobia

☎ 948 637288

Besta ederrak pasa!

DESGUACES



- Istripua izan duten ibilgailuak erosten ditugu
- Harrapatzeko zailak diren piezak
- Repuestoak

☎ 608 876 456 • 948 637 552

Lesaka-Igantzi errepidea, 2 km. • IGANTZI



Tarimak, ateak, leihoak, eskailerrak...
Obretako lanak orokorrean

Lander Sein - Mikel Arburua

Piedade gaina z/g • 31790 Igantzi

☎ 948 637 249



JATETXEA

1400 000000

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu

Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI

JOSE AGERRE

PINTURA LANAK



- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Moketa eta zintasol

☎ 610 22 15 28 • 948 638144 • IGANTZIKO BENTAK



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Hondarreko egunerako herri kirol jaialdia antolatu du Igantziko herri kirol taldeak. Aurten ere saio ikusgarria prestatu izanen dute, dudarik gabe.

Ortzirala 1

Ezkonduen Eguna

9:00etan Herri gosaria.

10:30etan Karrika buelta txistulariekin.

12:00etan Patata Tortila Txapelketa.

17:00etan Bertso pilota PEÑAGARIKANO eta IRAZU bertsolariekin.

19:00etan Betizuak.

21:00etatik 22:00etara Herriko dantzak.

0:00etatik aitzinera Dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Larunbata 2

10:00etan Pilota partidak. Herriko haurren txapelketaren finalak.

13:00etan Pala partidak (Emakumeak).

17:00etan Betizuak.

19:00etan Herri Kirolak.

0:30etatik aitzinera Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantzikiko Bentak
☎ 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.



Jose Canabal

Instalazio elektrikoak orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAS**

☎ 666 57 58 99 - 948 637 541

IGANTZI

josecanabal@tiscali.es

BI-BIDE
janaridenda

**BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU**

Tfnoa: 948 63 72 78
IGANTZI

Ortzirala 1

F T K ISTEGI IN IM TEGI

s l t b st n
S nm l kust n b h n
G x l atz k b st k

Ezt r 2 h E N
T l. F x 3 15 21

Besta ederrak pasa!

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA



Gas-olioa etxetik etxe banatzen da
Kotxe berri eta zaharren sosalmenta

Tel. 948 637 460 31770 Lesaka (NAVARRA)


SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

**Klase guzietako
aseguruak
herrian bertan!**

Oskar Txoperena
Baratzondo 1
IGANTZI
Tel.Faxa: 948 637236
Mug.: 610 507579



Nafarroako Gobernua
Industria eta Teknologia,
Merkataritza eta Lan Departamentua



1996.
urteko
zerbitzu
onenaren
aitzindari



Zurekin gara berriro

Matrikula epea: Iraila

Mugi zaitetz ordua hartzeko:
Lehenengoek lehentasuna dute

- Euskara • Alemana
- Ingelesa • Gaztelera
- Frantsesa • Italiera

elduaian@elduaian.com

☎ 948 510 635 • 629 818310
Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

☎ 943 670 052
Martin Jose Iraola - 8. • TOLOSA

☎ 943 674 733
Kondeko aldapa - 30. • TOLOSA

☎ 943 310 753
DONOSTIA

BEINTZA-LABAIEN

Hiru herritarri omenaldia egingen die Ittur-Ondo elkarteak

Urriaren 2an herri kirola, artisau erakusketa, herri afaria eta dantzaldia izanen dira

ttipi-ttapa

Beintza-Labaiengo Ittur-Ondo elkarteak, herriko udalaren laguntzarekin hiru herritarrei omenaldi-besta antolatu die urriaren 2rako. Elkarteak Jose Luis Telletxea aizkolaria eta Florentino Ibarra artisaua omendu nahi izan ditu eta Antonio Baleztena aizkolaria zenari oroimenezko omenaldia es-

kainiko zaio. Honela, arratsaldeko 4etatik aitzinera herri kirol saio berezia ikusgai izanen da Labaiengo plazan. Aizkoran Larretxea, Mindegia, Jaunarena, Loiar-te, Jose Luis Telletxea bera, Jon Telletxea, Xabier Mindegia, Jesus Etxeberria, Pello Telletxea, Marcos Telletxea, Jose Luis Ageta eta Pello Bertiz arituko di-

ra. Trontzalariek ere lana izanen dute eta Barberena anaiak, Pikabea anaiak eta herriko bi bikote arituko dira zeregin honetan. Artisauak ere izanen dira Labaiengo plazan, Florentino Ibarra herriko guante egileari omenaldia egin asmoz. Gaez, afaria izanen da aretze errearekin eta afal ondoan dantzaldia



ARTXIBOKOA

Berteen artean Florentino Ibarra eskulangilea omenduko dute.

Jalisko Band taldearekin. Afarirako txartelak aurretik salgai izanen di-

ra. Helduek 18 euro eta haurrek 9 euro ordaindu beharko dituzte.

ARESO

San Migeleko erromerian parte hartu zuen herriko parrokiak irailaren 5ean

Baserrietako putzu septikoen garbiketa begiratzan ari da Udala

Juana Mari SAIZAR

San Migeleko erromerian, irailaren 5ean, Aresoko parrokiak beste 40 parrokiarekin batera parte hartu zuen. Guarda etxetik otoitz giroan aurtengoan sinismena gaia hartuta, herriko gurutzeak aurrean zirela, santutegira ailegatu ziren eta San Migel aingeruak banan banan ongietorria eman

ziren. Penitentzia ospakizunak eta Meza Santuarekin aurtengoa bukatu zen. Esan behar, badirela urte mordoxka erromeria hau hasi zela eta pixkana-pixkana jende gehiago hurbiltzen dela.

Putzu septikoen garbiketa

Baserrietako putzu septikoen garbiketa be-

giratzan ari da Udala. Aurrekontuak eskatu dira eta putzu septikoa daukaten guziekin hitzegin da.

Ehiza postuen enkantea

Ehiza postuen lehendabiziko enkantea irailaren 18an, joan den larunbatean egin zen eta honen sesta irailaren 25ean egingo da.



ARTXIBOKOA

San Migel aingeruak maitzaren 23an herrira egingako bisita bueltatu zuen parrokiak.

Gripearen kontrako txertoa kontsultan

Gripearen kontrako txertoa irailaren 23 eta urriaren 14an egingo da herriko mediko kontsultan. Aldez aurretik or-

dua eskatu behar da 948 510800 telefonoan.

Udal kontribuzioak

Urrian udal kontribuzioak kobratzen hasiko dira.

LEITZA

Berrehun ikaslek hasi dute 2004-05 ikasturtea Amazabal Institutuan

Harrobiari buruzko herri kontsulta eginen da

Mikel ILLARREGI

Aurreko alean Erle-ta eskolako ikasle eta irakasleen lan itzulera gogoratzen bagenuen, oraingo honetan Amazabal Institutuko kideen ikasturte honetako hasiera aipatu beharra da. Hilaren 16an hasi zen ikasturtea ikasleentzat. Aurtan ere, aldaketak izan badira. Horien artean irakasleen murrizketa. Ikasturte honetan guztira, 29 irakasle dira, iaz baino bat eta erdi gutxiago (erdi hau jardunaldi erdiko irakaslea da). Hauetan, magistratza titulua duten hiru andereño soilik daude. Bestetik lizentziatura duten 24 irakasle eta azkenik, orientatzailea eta pedagogi terapeutikoko espezialista.

Ikaslegoari dagokionez, DBHko lehen mailakoak 34 dira (4-5 Aresokoak), 2. mailan 27 ikasle (lehenbiziko bi hauetan Areso eta Ezkurrako ikasleak daude). 3. mailan 54 (haue-tatik 10, Araitz-Betelu eta Goizuetakoak) eta 4. mailan 33 ikasle. Batxilergoan, 1. mailan, zientzietako espezialitatean 20 eta Letretan 13. Bigarren 20 ikasle guztira, zientzietan, 6 ikasle eta letretan 14.

Zuzendaritzari dagokionez, aldaketa bakarra izan da, Itziar Vi-

guerak idazkaritzako lanak utzi ditu eta bere ordez, Xabier Sanz ariko da. Bestetik, Pello Zes-tau eta Idoia Beloki, hurrenez hurren dira zuzendaria eta ikasketa-burua.

Ordu-tegiari dagokio-nez, batxilergoa egiten dutenek, 34 ordu izanen dituzte klase, iaz baino bi ordu gehiago.

Leitzan harrobirik bai ala ez?

Hau izanen da harrobiaren inguruan eginiko herri kontsultari buruz baiezkua eman ondoren, adostutako galdere. Irailaren 10ean eginiko Udal Batzarrean, Herri Kontsultaren Aldeko Taldeak aurkeztutako 442 herritarren eskaera onartu zen. Aralarreko 4 eta EAren 2 bozka izan ziren kontutan hartu zirenak, Larraín plataformak ere, aldeko jarrera azaldu zuen. UPNek aurkako iritzia azaldu zuen bere 5 bozken bitartez. Hauen aburuz, lau urtetik behin egiten diren hauteskunde bitartez egiten da herri kontsulta eta honen ondorioz aukeratutakoek eman behar dute hitza. Iritzi honek kontrako iritziak sortu zituen jendearen artean. Azkenik, UPN taldeko ordezkariak idaz-

tzia irakurri zuten, erabaki horrekin ados ez zeudela azalduraz eta alde egin zuten, horrela-ko erabakiak hartuz "alperrik zeudela" esanez. Hemendik aurrera, deialdia egiteko Estatuaren baimena eskuratu behar da, 27/2002 Foru Legeak dioenaren arabera.

Hurrengo puntuaren eztabaidan, Larraingo kide-hautetsiak, Aralarreko eta EAKo zinego-tzien ondoko aulkietan eseri ziren. Idazkariak horrela jarraitzerik ez zutela eta alkateak mahaitik jeisteko eskatu ondoren, publikoen artera itzuli ziren eta bestelako gora beherarik gabe jarraitu zuten.

Baigorri

2004ko mendi egu-tegiaren arabera, iraileko irteera, Baigorritik hasi, Adartza mendira igo-tzea (1250 m) eta Luzaidera jaustea izanen da ibilbidea. Oraindik irteerarako bilera egin gabe dagoenez, ohikoa den bezala, kartelen bitartez jakinaraziko da irteeraren berri.

Gripearen aurkako txertaketa

Irailaren 15etik urriaren 15a arte, Osasun Etxean, gripearen aurkako txertoa jaso ahal



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Bi hilabete igaro ondoren, beraien herrialdera edota kanpamenduetara itzuli ziren Saharatik etorritakoak. Hurrengo aldizkarian, bere etxean haue-tako gaztetxo bat izan duen gurasoen testigantza azalduko dugu.

izanen da. Txanda hartzeko alde z aurretik 948-510 800 telefono zenbakira deitu behar da, goizeko 8etatik 10etara.

Euskaraz ez badakizu jai duzu

Nafarroako Gobernuaren laguntzaz Udal Euskara Zerbitzuak eta euskaltegiek aurtengo kanpaina berria jarri dute abian. Etxeetara igo-ri duten orrian, euskaraz irakurtzen eta idazten, askotan kostatzen zaigula aipatzen dute. Hala ere, euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasuna, hobetu dezakegula ziurtatzen dute, "dezente gainera". Hau guztia horrela izan dadin bertako IKAK gure beharretara egokitu-tako ikastaroak eskain-

tzen ditu; "praktikoak, arinak, eta, gehienetan, laburrak". Hau guztietaz, beste argibideren bat nahi izanez gero, 948 610 776 telefono zenbakira dei dezake-zue.

Internet

Maila aurreratuko in-formatika ikastaroa antolatu dute institutuan. Hau urriaren 4an hasi-ko da eta 30 orduko ikas-taroa izanen da, aste-lehenetan eta asteaz-kenetan. Edukiak hona-ko hauek izanen dira; Internet, posta elektro-nikoa, antibirusak, Excel eta Acces aurrera-tua...

Izena Astiz liburu-dendan eman behar da eta lehen egunean irakasleari 90 euro eman behar zaizkio ikastaro-aren truke.

GOIZUETA

Komunalen hitzarmenaren ziriborroa urriaren 2an aurkeztuko du Udalak

«Gozamenez, sexualitatea eta gazteria» kanpaina gauzatzen ari da Gaztetxean

Esteban AROTZENA

Dagoeneko Nafarroako ia herri guzietan gertatu den bezalaxe, herri-lurraren hitzarmena sinatzeko zorian egon liteke gurean ere. Urriaren 2ko arratsaldeko 6:30etan jasoko dute herritarrek Udalak prestatu duen akordioaren ziriborroaren berri. Hortik aurrera hasiko da egiazko eztabaida.


Udal tasak eta egur loteak

Herriko Etxetik heldu diren beste berri batzuekin segituz, tasak (urak, zaborrak, saneamendu kanona...) ordaintzeko borondatezko epea urriaren 22a artekoa izanen da. Bestalde, sutarako egur lotea behar dutenek irailaren 30a baino lehen izena eman beharko dute Udaletxean. Egurra etxeko atarira garraiatzeaz norbera arduratu behar omen da aurtan.

Tailerrak Gaztetxean

Nafarroako Gobernuaren babespean, Udalak, eskualdeko Gizarte Zerbitzuaren prebentzio programak eta Gaztetxeak antolatutako tailer edo ikastaroak egiten ari dira herrian,

Gaztetxean bertan hain zuzen. «Gozamenez, sexualitatea eta gazteria» izena darama kanpaina honek eta lehen-go larunbatean sabel dantza tailerra egin zen. Larunbat honetan, berriaz, irailak 25, goizeko 11:00etatik 13:00etara bitarte, laztan tailerra izanen da. «Sexualitate, erotika eta zentzumen» izeneko erakusketa ere ikusgai dago Gaztetxean aste osoan. «Anima zaitetz, sentitu, gozatu eta ongi pasa». Ez dira aholku txarrak antolatzaileek emandakoak.



ARGAZKIA: J.A. LUJANBIO

Goizuetan ere tomate ederrak egin dira aurtan. Begiratu bestela Konejerrako Joxek eskuetan daukan 1,190 kiloko ale eder honi.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

gaztelu scl

iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

ORDOKI LIKOREAK

ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako
haragi eta
arrainak



BAZTAN

Anizko Arrosarioko Amabirjin bestak urriaren 2tik 5era

Astelehenean egingen dira golf eta mus txapelketak eta Putzipartol laisterketa

Launbeta 2 Bezpera

20:00etan ezkil jotziak eta altxaferuak.
20:45etan Baztan-Zopak Elkartean. **0:30etatik 2:00etara** TXUTXIN IBÁÑEZ Mariatxia. Ondotik dantzaldia. **Akitzeko** zinger jatea.

Igendia 3 Arrosarioko Ama- birjinaren Egune

11:00etan Doneztebe-ko txistulariekin kalejira. **12:00etan** Meza Nausie. **13:00etan** otordue. **17:00etan** pilota partidek. Ondotik irri dantzak (tartean Anizko dantzak). **18:30etan** Txan Magoa. **20:00etan** mutil dantzak. Ondotik trikitilari gazteak.

Astelehena 4 Haur eta

Nekazarien Egune
9:00etan argi soinuak Maider eta Maitane trikitilariarekin. **9:30etan** Baztango VIII. Golf txapelketa.

10:00etan herrikoen arteko pilota txapelketa. **12:00etan** mus txapelketa. **14:00etan** paellaz asetzeko aukera ederra. **16:00etan** Ginkana. **17:00etan** haur jokoak. **19:00etan** txokolate jatia. **21:00etan** herri afaria. Ondotik dantzaldia JOXE ANGELekin. **Akitzeko** Anizko IX. Putzipartol Laisterketa.

Astiertia 5 Adiskidetasun Egune

10:00etan argi soinuak Maider eta Maitanerekin. **11:00etan** pilota partiden finalak. **13:00etan** mus txapelketako finala. **14:30etan** zikiro jatea JOXE ANGELekin alaiturik. Ondotik herriko bertsolariak. **17:00etan** sokatira: ezkonduak ezkongabeen kontra. **21:00etan** zinger jatea. **0:00etan** Gi-xajua ni beste akabaila emateko

ARGAZKIAK: MAITANE
MARITORENAK UTZIAK

Bi argazkiak, 1935eko bestetan ateriak dira. Goiko argazkian, Jaurregiko larrainean ageri dira gazte bestazaleak eta behehian Kokotxeko larrainean. Bistan da, musika eta giro ona zeramatzela Anizko gazteek.



ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • **ELBETE**
☎ 948 45 20 88

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

SOULE
Hileta artea
☎ 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 • **URDAZUBI**

JULIE'S ENGLISH ACADEMY
SPARK
✓ 2004-05erako matrikula irekia urriaren 1a bitarte. Plaza mugatuak.
✓ Haur eta helduen-dako ingeles klaseak
✓ Azterketa ofiziale-tara aurkezteko prestakuntza.
948 580 175 - 636 858 850
Paularena, 35-1.A • **ELIZONDO**

BAZTAN



ARGAZKIA: ONDIKOL

137 hurrek, 52 Erratzun, 45 Elizondon, 28 Iruritan eta 12 Oronozen, parte hartu dute Euskara Zerbitzuak antolatutako Baztango Udako Jostaldian. Maddi Arrijurria, Maria Santesteban, Itziar Plaza, Iratxe Garmendia eta Izaskun Zabaleta izan dira monitoreak. «Arras ongi» pasatu omen dute uda.

Mariezkurrena enpresak egingen du Elizondo eta Elbeteko zeharbidea

1,46 milioi eurotan egingen ditu kilometro terdian gauzatuko diren lanak

tti-pi-tapa

Mariezkurrena erakuntza enpresak egingen ditu N-121-B errepidean Elizondo eta Elbeteko zeharbidea, azken udal batzarrean aho batez onartutako erabakiaren arabera. Hasierako aurrekontua 1.470.678,96 eurokoa zen eta Mariezkurrenak

aurkeztu zuen proposamen bakarra, 1.463.225,55 eurokoa. Beraz, %0,50 jautsi du hasierako prezioa.

Lana Toki Azpiegitura Planaren barnean sartua dago eta edateko uraren eta ur zikinen eta euritako uren sareak berrituko dira. Horretaz gain, argiteria eta

zerbitzu ezberdinak kanalizatuko dira eta zeharbidea oso-osorik zolaberrituko da, bai bidea baita espaloiak ere. Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio eta Herrikan departamenduek 1.192.000 euroko dirulaguntza emanen diote Balleko Udalarari.

Elizondoko sarreran,

57 kilometro inguruan hasiko dira lanak eta Santiago karrika osoa moldatuko da, Elbeteko irteera, kasik 59 kilometrorra bitarte. Guztira kilometro terdi inguru moldatuko da. Proiektu honek gaur eguneko aparkalekuak eta berdeguneak erresetatuko ditu.

FLASH

Euskara bultzatzeko dirulaguntzak

Urtero bezala, hizkuntza normalizazio plangintzaren barnean, euskara eta normalizazio ekin-tzak bultzatzeko dirulaguntzak banatu ditu Balleko Udalak. Honela, Xaloe Telebistak 6.291,20 euro jasoko ditu; Xorroxin Irratiak 5.448,40 euro; ttipi-ttapa hamabostekariak 4.214,80 euro; Suinkia AEK Baztango Euskaltegiak 4.112 euro; Doike Euskara Taldeak, Baztango Gidaren truke 1.500 euro eta Etxetik Plazarak 1.233,60 euro. Horretaz gain, Lizarrako Nafarroa Oinezek, Herri Urratsak, Kontseiluak eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, bakoitzak 300 euroko dirulaguntza jasoko du.

Musika Eskolako tasak

Udal Musika Eskolaren tasak ez dira igo 1998 urteaz geroztik. Tarte horretan gastuak igo eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak berdin mantendu direnez, Udalaren finantziarioa %38a izatetik %42 izatera pasatu da sei urteotan. Hori dela eta, Udalak tasak igoatea eta urtero KPlaren (IPC) arabera eguneratzea erabaki du.



asnap.me
solución integral de la gestión y comunicación empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Gortak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igetserak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Gortak asessoramendua
- Dirulaguntza ezberdinak
- Sozietateen inposizioak
- Errenta aitortpenak

ORONÓZ
Baztan, 4. solairua
Tele: 948 451 823 Fax: 948 451 418
info@asnap.me

ELIZONDO
Baztan, 31. solairua
Tele: 948 580 586 Fax: 948 580 586
info@asnap.me

BALEA
Baztan, 1. solairua
Tele: 948 363 308 Fax: 948 363 349
info@asnap.me

BURKAITZEA

ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO



Gierreserena

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Girona

Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

SENPERE

Ehiza denboraldia hasi dute gan den astean 260 ehiztarik

Ibarrungo bestak urriko lehen
asteburuan ospatuko dira aurtan

Franck DOLOSOR

Buruilaren 12az geror, ehiztarien tiroak entzun daitazke berriz herriko oihanetan eta penzteetan. Gaurko egunean, 260 ehiztari inguru daude Senperen. Azken urteetan, ehiztarien kopurua apaldu da orain baimenak behar direlaketz. Permisa pasatu behar ez balitz, jende gehiagok hartuko lituzkete armak. Denboraldi berri huntan, aste buru oroz, herriko ehiztari gehienak lehen argi turrin tekin ateratzen dira faisaiak, oilagorak, biligarroak, erbiak eta basurdeak ehizatzerat.

Ehizaren inguruan, lagun andana biltzen da asteburuetan bereziki eta aurtan denen ahotan gauza bera entzun daitaie, Akitania iparraldean zakurrak ezin direla ehizatzerat eraman hilabete batez. Frantziako osasun agintariak Dordona, Gironda eta Lot et Garonne departamentuetako zakur guztiak errabiaren kontra txertatzea gomendatu dute. Gan den udan errabiatutako zakur bat legez kanpo ekarri zuen norbaitek Marokotik Bordelerat. Debeku hune kin beraz eritasun hori gelditu nahi da. Charles Sabarots eta Arnaud Bacardatz ehiztari ezagunak dira Senperen eta beren ustez hobe da gi-

sa batean zakurrak debekatzea hilabete batez zerbait gerta. Hilabete batez, txertoek beren eragina egiten dute eta ondotik ehiztariak beren zakurrak hartzen ahaliko dituzte. Charlesen erranetan komunzki axeriek hedatzen dituzte errabia kutsadurak bainan Iparraldean ez da sekulan halakorik gertatu. Alsazian aldiz, halako kutsadura bat izan zen denboran. Horitakotz, Charles eta Arnaud ren ustez hobe da orain kasu egitea bertzenaz ez baita sekulan finitzerik izanen gaitz hune kin. Ehiztarien zakurreri inposatuak zaizkieten txertoak eta kontrolak zakur guzietan he-



ARGAZKIA: FRANCK

Charles Sabarots eta Arnaud Bacardatz ehiza irekitze bezperan.

datzearen alde daude bi senpertarrak. Herriz herri zakurrekin dabil-tzan jendeek ez dute sekulan kontrolik eta alta haien bidez heda daitazke eritasunak.

Ibarrungo bestak

Ibarrungo bestak, urriaren 1etik 3ra ospatuko dira aurtan. Hiru egunez animazio frango ospatuko da lehenagoko herriko erdialdean: dantzak, mutxi-koak, kontzertuak, pilota partidak...



ARGAZKIA: STUDI DE LA NIVELLE

Menetre senar emazteek urrezko eztaiak ospatu dituzte buruilaren 3an.

**Ahatekietan adituak
eta arituak**

Martiko S.A. Pol. Zalein, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

**HERRIKO
ETXEO
EDANTEGIA**

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

**ttipi
ttapa**

☎ (0033) 948635458

ZOANSA

SEAT ALFA ROMEO SALMENTA

MARKA GUZIEK KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Marc Berasategi herriko pilotaria Munduko azpitxapeldun izan zen esku huska

Waltari kubatarraren kontrako finalean ez zen mirakulurik izan

Angela eta Xamo

Irailaren 12an, Marc Berasategi gure pilotari famatuak munduko txapelketaren finala jokatzen zuen esku uskaz, Waltari Kubanoaren kontra, "Moderne" trinketea. Aitzinetik bazakien partida zaila izanen zuela, oiloko partidaren erreski galdu zuelako haren kontra. Igan-de goiz huntan, gauzak ez dira aldatu gure pilotari gaixoarentzat. Ezta mirakulurik izan pilotalekuan. Waltari jaunak munduko txapela erreski lortzen zuen. Mark Berasategik ez zuen fitxik egitekorik txapeldun haundi horren kontra.



ARGAZKIA: ANGELA

Haurrentzako omeleta txapelketan, bikoteka, entsaiatu dira omeleta bat egiten, gehienak heien gurasoen aitzinean.

Marmitakoa eta Elkarleen Eguna

Azkeneko zenbakian erran ginuen bezala, Azkaingo marmitakoa eta elkarleen egunak udako manifestaldien bukaera seinalatu dute. Irailaren 4an, arratsaldean, herriko elkarleen kideak Kiroleta kirol zelaiaren elgarretaratu dira

joko batzue egiteko.

Arratsean, omeleta txapelketa bat antolatua izan zen haurrentzat. Bikotek, entsaiatu dira omeleta bat egiten, gehienak heien burasoen aitzinean.

Biharamunean, hamasei bikotek parte hartu dute marmitako txapelketan.

Claude Meharu eta Maite Azaretek irabazi baldin badute, azpimarratu behar dugu, halere, TTIPI TTA-PAKO Angela eta Ihintzak bigarren tokia hartu dutela! Gero, bazkarri tenorean, 250 jende bildu dira txapelketako platerak jateko. Erran gabe

doa denek nahi zutela Angela eta Ihintzarena jastatu!!

Eguna famatu horrek udako esku huska txapelketaren finalarekin bukatua izan da. Lehenik, Azkaingarrak pilotari eskolako haurrak ari-tu dira, plazako frontoian. Partida nagusian,

Pantxoa Laduche ta sarako Arotzarenek zailatasunik gabe irabazi dute Jon Laduche ta Inaki Etxeberri taldearen kontra.

Kontzertu bat elizan ikastolaren alde

Azkaingo Larrun Kanta koralak kontzertu bat antolatu dute irailaren 14an, herriko elizan, irabazitako dirua, Ikastolari emanez.

Gau eskolako sartzea

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) gaueko klaseak galderaren arabera idekiko da. Izenak ematen ahalko dira irailaren 24an, ostiralarekin, gaueko 6etatik 8ak arte eta irailaren 25an, larunbatarekin, goizeko 10etatik eguerdi arte, Jauregi elkartetxean.

bentamiguel
dena, jateko eta osasun

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Taldea
Ukarrak
Jantxidenda
Udalategia

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

udana
salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

SARA



ARGAZKIA: GARA

Ainhoa, Zugarramurdi, Sara eta Urdazubiko alkateek sinatu zuten Xaretaren konstituzioa.

Xaretari egitura juridikoa eman diote Sarako besten kariatara

Lau herrietako alkateek sinatu zuten agiria

Saski eta Joana

Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi-ko alkateek Sarako bestak profitatu zituzten Xaretaren elkarte ofizialki osatzeko. Lau herriek zenbait urte daramazkete elkarlanean, turis-

